

C1 maila

Auto-ebaluazioa

- ▶ Hurrengo orrialdeetako zerrenda oinarri hartuta, zehaztuko duzu zer egiteko gai zaren X bat jarritz.
Zalantzarik izanez gero, irakasleari galdetu edo ez erantzun.

Nola bete:

Ez baduzu helburu hori lortu, eta ez bada zure lehentasuna, ez idatzi deus

.....	bai Garbi duzunean helburu hori lortu duzula	Nire Lehentasuna Ez baduzu oraindik lortu, baina helburu bezala jotzen baduzu.	ez dakit Garbi ez duzunean helburu hori lortu ote duzun.
-------	---	---	---

	BAI	Nire lehentasun ak	EZ DAKIT
a.- Entzumena			
a.1. -Gai naiz hizketaldi edo elkarrizketa luze samarra jarraitzeko, nahiz eta argi egituratuta egon ez edo ideien arteko erlazioak argiak izan ez.			
a.2. -Gai naiz ahozko esaera eta esapide ugari ulertzeko, estilo eta tonu aldaketak ezagutuz.			
a.3. -Gai naiz iragarki publikoen bidez zabaldutako informazioa jasotzeko, transmisioaren kalitatea txarra bada ere (esaterako, geltoki batean).			
a.4. -Gai naiz informazio tekniko konplexuak ulertzeko, esaterako produktu edo zerbitzu ezagunen argibideak edo funtzionamendua.			
a.5. -Gai naiz nire laneko edo ikasketa-arloko hitzaldiak edo aurkezpenak ulertzeko, edukiaren zein formaren aldetik konplexuak izan arren.			
a.6. -Gai naiz, ahalegin handiegirik gabe, filmak ulertzeko, argota edo esapide askotxo agertu arren.			
b.- Irakurmena			
b.1. -Gai naiz testu zorrotzak eta luzeak zuzen ulertzeko eta ahoz laburtzeko.			
b.2. -Gai naiz txosten zehatzak, analisiak eta iruzkinak irakurtzeko, iritziak, ikuspuntuak eta ideia-loturak ulertuz.			
b.3. -Gai naiz neure arloan, goi mailako testuak ulertzeko (esaterako, ikerketa txostenak) eta bertatik informazioak, ideiak eta iritziak ateratzeko.			
b.4. -Gai naiz argibide luze samarrak eta konplexuak ulertzeko, esaterako tresna berri baten erabileraz, nahiz eta neure laneko edo intereseko arloekin zerikusirik ez izan, beti irakurtzeko denbora nahikoa badut.			
b.5. -Gai naiz gaur egungo literatur testuak erraz irakurtzeko.			
b.6. -Gai naiz literatur testuetan, argumentuaz haratago joateko eta barneko mezuak, ideiak eta loturak harrapatzeko.			
b.7. -Gai naiz literatur lanen testuinguru sozial, politiko edo historikoari antzemateko.			
b.8. -Gai naiz edozein motatako gutunak irakurtzeko, inoiz hiztegia erabilia.			
c.- Elkarrizketa			
c.1. -Gai naiz jatorrizko hitzunen arteko elkarrizketa bizi batean zuzenean parte hartzeko.			
c.2. -Gai naiz erraz, zuzen eta egoki hitz egiteko gai askoren gainean: gai orokorrak, lan esparrukoak, akademikoak eta zientifikoak.			
c.3. -Gai naiz jendartean modu malgu eta eraginkorrean hitz egiteko, sentimenduak azalduz, zeharkako aipamenak eginez edo umorea erabiliz.			

d.- Ahozko adierazpena	BAI	Nire lehentasuna	EZ DAKI
d.1. -Gai naiz argi eta zehatz hitz egiteko, xehetasun eta guzti, gaiak zailak eta bihurriak badira ere.			
d.2. -Gai naiz testu luze eta bihurriak ahoz laburtzeko.			
d.3. -Gai naiz zerbait luze eta zabal azaltzeko, gaiak uztartuz, zenbait aspektu berezi garatuz eta bere hizketaldia egoki amaituz.			
d.4. -Gai naiz lan-esparru edo arlo pertsonaleko gaiak argi egituratuta aurkezteko, prestatutakotik aldenduz eta entzuleen galderei bat-batean erantzunez.			
e.- Estrategiak			
e.1. -Gai naiz loturazko esapide egokiak erabiltzeko, hitza hartzen dudanean edota hitza galdu gabe pentsatzeko denbora irabazi nahi dudanean.			
e.2. -Gai naiz neure hizketaldia besteen hizketaldiekin egoki lotzeko.			
e.3. -Gai naiz gogoratzen ez dudana hitz bat antzeko batez ordezkatzeko, entzuleei arreta galarazi gabe.			
f.- Hizkuntza-kalitatea eta baliabideak			
f.1. -Gai naiz jario onez eta bat-batean espresatzeko; zaila eta abstraktua den gairen batek bakarrik sor diezadake oztoporen bat neure hitz jarioan.			
f.2. -Gai naiz gauzak argi, erraz eta ongi egituraturik adierazteko; esan nahi dudana adierazteko behar diren baliabideak menperatzen ditut, hau da, ideiak eta espresioak lotzen ditut eta testu koherenteak sortzen ditut			
f.3. -Lexiko zabala daukat eta hutsuneak arazorik gabe konpon ditzaket perifrasi baliatuz; oso gutxitan bilatu era nabarmenean hitz jakinen bat; oso gutxitan uko egin behar izaten diot esan nahi dudana zehatz esateari.			
f.4. -Gai naiz zuzentasun gramatikalaren goi mailan jarduteko; oso akats gutxi egiten ditut.			
g.- Idazmena			
g.1. -Gai naiz idatzi argiak eta irakurterrazak egiteko, gai askoren gainean, orokorrak zein lan esparrukoak.			
g.2. -Gai naiz gai zailak ere erraz eta ongi egituratuta aurkezteko, puntu nagusiak azpimarratuz, esaterako idazlanetan edo lan txostenetan.			
g.3. -Gai naiz gertaera edo gai jakin baten iruzkina egiteko ikuspuntu ezberdinak azalduz, ideia nagusiak azpimarratuz eta neure arrazonamenduak adibide zehatzez argituz.			
g.4. -Gai naiz hainbat iturburutako informazioa idatziz ulertzeko eta era koherentean laburtzeko.			
g.5. -Gai naiz eskutitz pertsonaletan sentimenduak, esperientziak eta gertaerak zehaztasunez deskribatzeko.			
g.6. -Gai naiz gutun formalak zuzen idazteko, adibidez, eskaera egiteko, kexa azaltzeko edota ikuspuntu baten alde edo aurka azaltzeko.			
g.7. -Gai naiz zuzentasun handiko testuak idazteko eta neure lexikoa eta idazkera moldatzeko, jasotzailearen, testu motaren eta gaiaren arabera.			
g.8. -Gaia naiz nire idazlanetan, irakurleari ongi egokitzen zaion idazkera aukeratzeko.			

